

“Baldintza teknikoen plegua banakako enpresarientzat webgune bat eta app bat diseinatzeko, garatzeko eta ezartzeko”

ADJUDIKAZIO MODUA: Publizitadedun prozedura negoziatua
KONTRATUAREN PREZIOA: 80.000 € (gehi BEZa)

1.- SARRERA

Enplegu eta Ekintzaitza Foru Agentzia (aurrerantzean **DEMA**) 1989an sortu zenetik enpresa egiturak sortzeko eta eratzeko laguntza ematen lanean ari da, eta horiek, % 90ean banakako enpresari, sozietate zibil eta ondasunen erkidegoa izeneko forma juridikoan sortzen eta eratzen dira (forma juridiko horrentzako izen ezagunena **AUTONOMOAK** da).

DEMAk badaki **enpresen digitalizazioa jada ez dela aukera bat eta gaur egun digitalizatu beharra dagoela enpresak lehiakorrek izateko**, eta hala, Autonomoen Euskal Sozietateari azterketa hau egiteko eskatu zion: “Autonomoak Interneten egoteko dituzten behar nagusien azterketa eta ebaluazioa”.

Azterketa horretatik ondorioztatu da beharrezkoa dela **web plataforma bat eta APP bat sortzea** sektore ekonomiko ezberdinetan lan egiten duten autonomoak Interneten kokatzeko eta horiei ikusgarritasuna emateko. Salbuetsi egingo da ostalaritza, ostatu eta merkataritza sektorea, horretan lan egiten duten autonomoak bigarren fasean sartuko direlarik.

2.- KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen xedea **giltza eskuan erako kontratu itxia** egitea da. Proiektuaren irismena edo proiektuaren emate epea aldatuz gero proiektuaren Zuzendaritza Batzordeak oniritzia eman beharko du, eta batzorde hori DEMAko langileek osatuko dute.

Xedea webgune bat eta APP bat diseinatzeko, garatzeko eta ezartzeko zerbitzuak kontratatzea da. Tresna horiei esker banakako enpresariak Interneten kokatuko dira eta ikusgarritasuna izango dute, eta hala, herritarrek modu erraz eta azkarrean profesional horien zerbitzuak kontratatu ahal izango dituzte, 4. puntuari adierazitako zehaztapen teknikoekin.

Kontratuan honakoak gauzatu beharko dira:

- **Diseinua:** Diseinu guztia kontratatutako enpresak bere egoitzan egingo du, DEMAko ordezkariekin koordinatuta.
- **Garapena:** Kontratutako enpresak gauzatu du bere egoitzan DEMAko arduradunekin koordinatuz, modulu estandarrei, funtzionamendu araei, aplikazioak Interneten/Intraneten egoteari eta Aldundiaren Izaera Korporatiboko Gidaliburuari dagokionez.

- **Ezarpena:** Kontratutako enpresak zerbitzarietan instalazioa egingo du eta martxan jarriko du sistema, garapen fasean beharrezko probak egin ondoren.

Tresnaren eta plataformaren jarraipena egingo dute lehenengo 6/12 hilabeteetan zehar horiek optimizatzeko.

Plataforma 2020/9/30era arte mantenduko da.

- **Dokumentazioa:** Guztiz gauzatuko du kontratatutako enpresak DEMAko arduradunekin koordinazioan, erabilitako metodologiarekin eta gaur egun dagoen dokumentazioarekin bat eginez. Lan horiek guztiak kontratatutako enpresaren egoitzan gauzatuko dira.

- **Prestakuntza:** Kontratutako enpresak beharrezko prestakuntza emango die DEMAko kideei eta DEMAko dokumentazioan adierazitako kolaboratzaileei baita ere. Prestakuntza saioak DEMAko egoitzan egingo dira, eta horien kostua kontratuaren adjudikazio prezioaren barne egongo da.

Kontratutako enpresak web plataformaren eta APParen funtzionamenduari buruzko azalpen bideo bat edo gehiago egingo ditu, eta horiek plataforman bertan egongo dira.

3.-WEB PLATAFORMAREN ETA APPAREN DESKRIBAPEN TEKNIKOA

A) Proposamenaren baldintza teknikoak

Web plataformak honako oinarritzko baldintza teknikoak bete beharko ditu:

- Enpresa adjudikaziodunak beharrezko irudiak, grafismoak eta argazkiak emango ditu.
- Web atarian sare sozial nagusien edukien sozializazio teknologia egongo da (Facebook, Instagram, eta abar).
- Sistema HTML 5.0-en garatu beharko da eta bateragarria izan beharko da gaur egun gehien erabiltzen diren nabigatzaile hauen azken bertsioekin: Internet Explorer, Mozilla Firefox, Safari, Chrome eta Microsoft Edge.
- Webgunearen diseinua responsive motakoa izan beharko da, eta ordenagailu pertsonaletatik, smartphonetatik eta tablet bidez ikusgarria izan beharko da.
- AA mailako UNE 139803:2012 (WCAG 2.0-in oinarritutakoa) irisgarritasun araubidea betetzen dela bermatu beharko du.
- Webgunearen edukia zuzentasunez indexatu beharrekota izan beharko da, hizkuntza bakoitzarentzat SEO kokapena optimizatzeko.
- Software kalitateari buruzko **ISO/EC 25000 arauan jasotako erabilgarritasun estandarrak errespetatu beharko dira.**
- Proiektuaren errekturso eta baliabide guztiek erabilera libreko lizentziak izan beharko dituzte eta DEMArentzat gastu osagarririk ez dute sortu beharko ez orainaldian ezta etorkizunean. Gainera, baliabide horien erabilera eskubide guztiak DEMAri lagako zaizkio.

B) Arkitektura

Programazio hizkerak eta web plataforma eta aplikazio mugikorra sortzeko erabilitako liburutegiek erabilera libreko lizentzia izan beharko dute eta ezartzeko eta etorkizunean erabiltzeko kostu osagarririk ez dute izan beharko. Balioztapen positiboa emango zaie PHP-ri, Java-ri eta javascript-i, hizkera horietan oinarritutako framework-ak barne.

Aplikazio mugikorrek IOS eta Android plataformetan funtzionatu beharko du.

SGBD-ek (datu baseak kudeatzeko sistema) ere software librea izan beharko du, eta balioztapen positiboa jasoko dute MySQL-ek eta PostgreSQL-ek.

Sistema guztia Linux zerbitzarian oinarrituta egon beharko da.

C) Instalakuntza

Sistemaren ezarpena ebaluatzeko zehaztu egin beharko da erabiliko den metodologia, hauek deskribatuz gutxienez modu zehatuan:

- Plataforma zuzentasunez ezartzeko eta egoki funtzionatzeko prozesuen diseinua eta analisisa, eta hala badagokio, migrazioa.
- Ezarpen fase bakoitzean gauzatuko diren ekintzak eta lanak, baita nori zuzenduta dauden ere.
- Informazioa jasotzea eta datu-basea sortzea.
- Garapena.
- Puntu kritikoak.
- Probak, instalakuntza eta martxan jartzea.

Beharrezko azpiegitura (zerbitzari birtualak, datu baseen zerbitzariak, aplikazio zerbitzariak, web zerbitzariak) DEMAK instalatuko eta mantenduko du, adjudikaziodunaren eskakizunak betez baina DEMAKo estandarrak errespetatuz. DEMAK azpiegituraren backup eta monitorizazio zerbitzuak emango ditu. Adjudikaziodunaren proposamena DEMAKo zerbitzarietan ezartzea eta lekuak sortzea DEMAKo teknikariek elkarlanean gauzatuko da.

Lanerako bi espazio egongo dira, bata garapenerako eta bestea ekoizpenerako.

Garapen esparruaren xedea lekuen egitura sortzen joatea da ekoizpen esparrura pasatu aurretik. Edonola ere, garapen esparru hori ez da izango arazketa esparrua kanpoko enpresak egin beharreko garapenak egiten joan ahala funtzionatzeko. Horrelako kodeak aurretiaz probatu beharko dira enpresa adjudikaziodunaren egoitzan.

Enpresa adjudikazioduna garapen esparrura SSH eta FTP bidez sartuko da. Esparru horretan leku itxietarako administrazio baimenak emango dira, eta hala, enpresa adjudikaziodunak lekuaren egitura, orrialdeak eta edukiak sortu ahal izango ditu. Software osagarria instalatu behar baldin bada, lan hori DEMAKo teknikariek hala eskatuta gauzatuko da.

Hasieran ekoizpen prozesua DEMAKo teknikariek batera martxan jarriko da DEMAren egoitzan.

Ekoizpen esparruan ondoren egingo diren hedatze guztiak DEMAKo teknikariek hala eskatuta gauzatuko dira. Arazoak konpontzeko enpresa adjudikaziodunak aplikazio fitxategietara eta lekuen edukien kudeaketara sarbidea izango du.

DEMAko teknikariek batera egin beharreko lanak, orokorrean, DEMAKo laneko ordutegian (08:00etatik 15:00etara) gauzatuko dira, eta laneko egutegian ezarritako egunetan.

D) Segurtasuna

Adjudikaziodunak webgunean datuen segurtasuna eta integritatea bermatzeko gehitutako bitartekoak diseinatuko ditu eta horien berri emango du. Horretarako, gutxienez hauek egin beharko ditu:

- Eraginpeko sistemen segurtasun logikoa.
- Firewall eta abarren aholkuak.
- Datuak ezabatzearen edo galtzearen aurkako segurtasuna. Informazioaren integritatea bermatzeko lanak identifikatuko eta aholkatuko ditu.

E) Eskaintza teknikoa

Eskaintza teknikoan bermatu egin beharko da kontratua egikaritzeko beharrezko metodologia eta teknika menperatzen direla. Proiektuaren deskribapen osoa egiteko beharrezko informazioa gehitu beharko da:

- Proiektuaren beharrak nola konponduko diren (baldintzak betetzea).
- Deskribatutako beharrei euskarria emateko erabiliko den arkitektura.
- Garapen metodologia eta lanen planifikazioa zein izango diren, helburuak, lortu beharreko emaitzak (txostenak entregatzea, dokumentazioa eta softwarea eta abar), beharrezko baliabideak, eta abar.
- Proiektua kudeatzeko eta jarraitzeko erabiliko diren mekanismoak.
- Prestakuntza plana zein izango den.
- Zeintzuk izango diren mantentze aukerak bermea bukatu ondoren.

Gutun-azalean PDF formatuko kopia bat gehituko da.

E) Eskatutako dokumentazioa eta aurkeztu beharrekoak

Proiektuaren faseak gauzatu ahala proiektua ebaluatzeko dokumentuak aurkeztu beharko dira. Hauek izango dira gutxienez:

- a) Proiektuaren Baldintza Agiria (DRP).
- b) DFD eta DER agiriak.
- c) Web atariaren diseinu grafikoa: Diseinu agiriak eta estilo orriak.
- d) Aplikazio mugikorraren interfazaren diseinua.
- e) Hala badagokio, proiektuaren planifikazioaren berrikuspenak.
- f) Proiektuaren faseen jarraipen txostenak.

Agiri horiek DEMAK baliozkotu beharko ditu behin betikotzat jo aurretik.

Modu osagarrian eta proiektua bukatzean, hauei buruzko dokumentazioa aurkeztuko da:

- g) Diseinu tekniko eta datu basearen diseinua.
- h) Aplikazio guztien eta modulu osagarrien iturri kodea.
- i) Erabiltzaileentzako eskuliburuak.

F) Metodologia eta lanak planifikatzea

Eskaintzetan proiektuaren faseak, jarduerak, lanen kronograma eta proiektuaren kalitatea eta kudeaketa bermatzeko aplikatuko diren neurriak zehaztuko dira. Proiektuaren fase bakoitzeko lanak zehaztuko dira baliabideak, beharrezko profilak, entregatu beharrekoak, kronograma eta denbora helburu nagusiak adieraziz. Lanaren plangintzan entregatu beharrekoei eta lotutako dokumentazioari dagozkien helburu epeen estimazioak jaso beharko dira, baita balioztapen eta jasotze jarduerenak ere.

G) Proiektuaren jarraipena kudeatzea

Proiektuaren kudeaketa eta jarraipena nola egingo diren adieraziko da (kudeaketa egitura, arduradun teknikoak eta administratiboak, informazio fluxuak, eta abar). Proiektuan zehar adjudikaziodunaren eta DEMAren artean ezarriko diren informazio fluxuak oso ondo definitu beharko dira, baita informazioa trukatzeko metodoak ere.

Adjudikaziodunak kontratua egikaritzean aldizka txostenak aurkeztu beharko ditu bere jarduerari buruzko datu nagusiak adieraziz. Kontratua egikaritzean adjudikaziodunak une oro DEMAri hark eskatutako informazioa eta dokumentazioa emango dizkio DEMAK zerbitzuen inguruabar guztien berri izateko, eta kontratua egikaritzean sortu ahal izango diren arazoak berri ere emango dio. Edonola ere, adjudikaziodunaren lankidetzaren ondorioz DEMAK adjudikaziodunari ez dio emango DEMAren izenean eta berau ordezkatzuz ekintzak sustatzeko eta/edo ondorioztatuzko ahalmena.

Adjudikaziodunak kontratua egikaritzean agindu ahal izango diren jarraibideak eta zuzentarauak beteko ditu, eta DEMAK berrikuspen eta kontrol jarduketak egingo ditu. Aurretik onetsitako planifikazioa aldatuz gero DEMAK hori berretsi beharko du, eta horrelakorik egin ezean, adjudikaziodunak ez-betetzea gauzatu du.

4.-WEB PLATAFORMAREN ETA APPAREN EDUKIAREN DESKRIBAPENA

Web plataforma eta APPa DEMArentzako eskuragarri jarriko dira **gaztelaniaz eta euskaraz**.

Plataformak **honako eduki blokeak eta funtzionalitateak** izango ditu, eta aplikatu beharreko metodologia eta inguru teknologikoa dagozkion atalean zehaztuta daude.

A) I. BLOKEA: Webgunean eta APPean egongo den espazio batean **sektore ezberdinetako profesionalak agertuko** dira (sektore guztietakoak ostalaritza, ostatu eta merkataritza sektorekoak izan ezik, albo batera utzi gabe horiek ondoren sartzeko aukera), eta **erabiltzaile partikularrek nahi dituzten bilaketak egin ahal izango dituzte**.

Bilaketak honako bi moduetan gauzatu ahal izango dira:

- 1.- Bilatzaile bat erabiliz bilaketa irizpide ezberdinekin.
- 2.- Bilatzen ari garen profesionalaren atalean klik eginez. Horretarako kategorizatutako zerrenda batzuk egongo dira.

Atal horretako bisualizazioak profesionalen zerbitzuei buruz partikularrek egindako balorazio ordenaren arabera antolatuko dira, eta bestelako irizpide osagarriak ere neurtuko dira.

Profesionalek **emandako zerbitzuak baloratu** nahi dituzten partikularrek erabiltzaile profila izango dute, hau da, erregistroa gauzatu beharko dute.

Izar eta oharren sistema bat ezarriko da eta hala, ezarritako irizpideen (kalitatea, prezioa, hurbiltasuna, eta abar) arabera puntuak jarriko dira.

Partikularrek zerbitzuak baloratzea sustatzeko erabiltzaileak sailkatzeko sistema bat (**amateurrak, seniorrak eta abar**) ezarriko da.

Web plataforman bertan gogoraraziko da, baita mezu elektronikoko eta WhatsApp bidez ere, erabiltzaileek zerbitzuari buruzko iritzia eman dezaten.

B) II. BLOKEA: Web plataformak eta APPak espazio bat izango dute altan eman diren **profesionalak bertan batzeko**.

Espazio horren helburu nagusia **profesionalek plataforman beste profesional batzuei aurrekontuak bidaltzeko eskariak egitea da**, eta hori guztia pertsonalizatutako irizpideen arabera. Plataformak barneko kudeaketa egingo du, eta gainera, hautagaiak eskatu dituen profesionalari horiek proposatuko dizkio.

Plataformak aukeratutako edo proposatutako profesionalak jakinarazpena jasoko dute mezu bidez, hala, eskaintza aurkeztu ahal izateko.

APPerako berehalako mezularitza zerbitzua egongo da.

C) III. BLOKEA: Web plataformak eta APPak intereseko informazio atala izango dute. Atal hori eguneratuta egongo da eta banakako enpresariak, sozietate zibilek eta ondasun erkidegoek erabili ahal izango dute.

Aurretik adierazitako gutxienezko zerbitzuez gain, prozeduran parte hartzen duten enpresek webgunearen eta APParen zerbitzuak indartzeko edo hobetzeko funtzionalitate osagarriak hobetzea proposatu ahal izango dute.

5.- JABETZA INTELEKTUALA ETA TRESNA USTIATZEKO ESKUBIDEAK

Kontratua bukatzen bada edo aurretiaz deuseztatzen bada, DEMAk bakarrik izango du jabetza intelektualaren titulartasuna ondorio guztietarako. Horrez gain, kontratua egikaritzean entregatu beharreko guztien, softwarearen, dokumentazioaren eta kode iturriaren titulartasuna ere DEMAren izango da. Ondorioz, DEMAk entregatu beharreko guztiak erreproduzitu, aldatu edo hedatu ahal izango ditu guztiz edo modu partzialean, eta adjudikazioduna ezin izango da horren aurka agertu.

Enpresa adjudikaziodunak baldintza horiek errespetatuko ditu eta kontratuan entregatu beharrekoak ez ditu erabiliko, jakinaraziko edo hedatuko DEMAren berariazko baimenik gabe. Gainera, uko egiten die legezko ekintza edo erreklamazioei, ekintza edo erreklamazio profesionali, ekonomikoari edo edozein motakoei.

Enpresa adjudikaziodunak uko egiten dio proiektuaren zatiak guztiz edo modu partzialean erabiltzeari.

6.- KONTRATUA EGIKARITZEKO EPEA

Kontratua egikaritzeko guztizko epea kontratua sinatzen denean hasiko da eta 2019/9/30ean bukatuko da.

Gehienez ere 2019/3/31n enpresa adjudikaziodunak webgunearen eta APParen demoak aurkeztu beharko ditu aurkezpen publikoa egiteko. Tresnaren mantentze orokorra gutxienez 2020/9/30era arte egingo da.

Emate datak betetzen ez badira zehapen ekonomikoak ezarriko dira.

7.- BERMEA ETA MANTENTZEA

Enpresa adjudikaziodunak gutxienez urtebeteko berme aldia emango du, DEMAk proiektuaren aldeko jasotze formala egiten duenetik aurrera zenbatzen hasita.

Aldi horretan zehar diseinuko, garapeneko eta instalakuntzako oker guztiak konponduko ditu inolako kostu gehigarririk gabe.

Webguneak eta APPak ez dute ezarritako azpiegituraren segurtasuna arriskuan jarri dezaketen ahultasunik izango. Era berean, ez dituzte gaizki erabiliko eskuragarri dauden baliabideak, diseinua txarra izan delako edo funtzionamenduan akatsak egon direlako. Edonola ere DEMAk arazoak sortzen dituzten produktuak indargabetu edo desinstalatu ahal izango ditu.

DEMAk ez du produktuak izan ditzakeen akatsen edo funtzionamendu okerren gaineko ardurarik izango. DEMAk ez du ere berean akats posibleen arrazoiak lokalizatu edo identifikatu beharko. Era berean, produktuari egotz dakizkiokeen eta produktuak maneiatutako galera edo filtrazioen ardura ez da DEMArena izango.

DEMAk azpiegitura teknologikoa (AT) eguneratzeko eskubidea izango du bere beharren arabera. Instalaturako produktuak ez badira bateragarriak AT berriarekin, produktuaren euskarria gauzatzen duen enpresak beharrezko aldaketak egin beharko ditu baldintza berrietara egokitzeko. Edonola ere, produktuek ezingo dute ATa aldatzea baldintzatu. Beharrezkoa denean, DEMAk bateragarria ez den produktua desgaitu edo desinstalatu ahal izango du.

8.- KONTRATUAREN PREZIOA

Zehaztutako zerbitzu guztientzako gehienezko prezioak ez du inolaz ere **LAUROGEI MILA EUROKO (80.000.-€) kopurua gaindituko, gehi BEZa.**

9.- GAITASUNERAKO ETA KAUDIMENERAKO GUTXIENKO BALDINTZAK:

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, jarduteko guztizko gaitasun juridikoa dutenek, **kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzen dutenek** eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikulua arabera kontratatzeke debekurik ez dutenek.

Kaudimen eta gaitasuneko gutxieneko baldintza hauek bete beharko dituzte enpresa eskatzaileek:

KAUDIMEN EKONOMIKOA: Enpresa adjudikaziodunaren fidagarritasuna bermatzen duen behar besteko kaudimen ekonomiko-finantzarioa bermatzea.

Kaudimen ekonomikoa egiaztatzeke zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeke beharko du eta azken bi urteetako urteko kontuak aurkeztu beharko ditu, saneatuta daudela egiaztatzeke.

GAITASUN TEKNIKOA: Beharrezko ezagutza teknikoak, eraginkortasuna, esperientzia eta fidagarritasuna bermatu beharko dira, baita 2., 3., eta 4. puntuetan deskribatutako zerbitzua gauzatzeko beharrezko antolamendu gaitasuna ere.

Hauek izango dira gutxieneko gaitasun betekizunak:

- 1) **Aurretik egindako lanak:** bermatu egin beharko da tresna informatikoak, web plataformak, appak eta softwareak diseinatzen eta garatzen duen esperientzia, komunitateak, foroak, proiektu sorkuntzak eta abar sortzeko funtzionalitateak dituztenak. Bereziki baloratuko dira interface-n ezagutzak eta erabiltzaileen esperientziak.
- 2) **Lantalde teknikoak:** Lantaldearen eraketa baloratuko da.

Betekizun horiek guztiak betetzen direla egiaztatu beharko da.

10.- ESKAINTZAK BALORATZEA

BALORAZIO IRIZPIDEAK:

DEMAk irizpide hauek kontuan hartuko ditu kontratuaren adjudikazioari buruzko erabakia hartzeko:

A) ESKAINTZA TEKNIKOA (haztapenaren % 50): Puntuazio altuena emango zaio ikuspuntu tekniko eta metodologikoa kontuan hartuz abantailatsuena den eskaintzari, eta horretarako honako balorazio irizpideak aplikatuko dira:

1. Aurkeztutako proposamenak duen gaitasuna 2., 3., eta 4. puntuan adierazitako zerbitzuaren betekizunetara ahalik eta gehien egokitzeko.
2. Proposamen teknikoaren kalitatea.
3. Proposatutako aurrerakuntza teknikoak edo metodologikoak.
4. Proposamenean gehitutako berrikuntzak eta hobekuntzak, 3. eta 4. puntuko zehaztasunetatik haratago doazenak.
5. Erabiltzaileen esperientzian oinarritutako interfacea.
6. Memoriarekin batera hasierako prototipoa aurkeztea positiboki baloratuko da.
7. Baloratu egingo da proposamenean 6. puntuan adierazitako epea baino laburragoa den emate epea jasotzen baldin bada. Epeak ez betetzeagatiko zehapenen oinarria adjudikaziodunak adierazitako epe horiek izango dira, eta beraz, horien arabera ezarriko dira zehapenak.

A) ESKAINTZA EKONOMIKOA (haztapenaren % 50): Puntuazio altuena jasoko du ikuspuntu ekonomikoa kontuan hartuz abantailatsuena den proposamenak. Horretarako honakoak baloratuko dira:

- Eskaintzaren prezioa, eta
- aurkeztutako aurrekontu ekonomikoaren koherentzia eta argitasuna.

DEMAk aurrehautaketa egingo du hiru hautagaitza finalistekin geratzeko. Bakoitzarekin bilera bat egingo du, eskaintza teknikoak xehetasun handiagoz ezagutzeko eta zalantzak argitzeko. Xehetasun guztiak jakin ondoren, berriro emango dizkie puntuak hiru hautagaitzei, eta puntuaziorik onena lortzen duena hautatuko du.

11. HAUTAGAITZAK AURKEZTEA

Adjudikazio prozeduran parte hartzeko honako agiriak aurkeztu beharko dira:

A GUTUN-AZALA: Izenburu hauxe izango du:

“BANAKAKO ENPRESARIENTZAK WEBGUNE BAT ETA APP BAT DISEINATZEKO, GARATZEKO ETA EZARTZEKO” ZEBITZUAREN KONTRATAZIORAKO PROZEDURAN PARTE HARTZEKO ESKARIA.

Gutun-azalean enpresaren izena, parte-hartze eskaria sinatu dituenaren izen-abizenak eta hori egiteko ahala jaso beharko dira. Gutun-azala ere sinatuta egon beharko da.

Gutun-azal horretan honako agiriak jasoko dira:

-Erakundearen legezko dokumentazioa, gutxienez agiri hauen kopia gehituz: (horiek lotzen dituen aurkibidea jarri beharko da hasieran):

- Lehiakidea pertsona juridikoa denean IFKren kopia, eraketa eskritura eta estatutuak, zuzentasunez izena emanda dagokion erregistroan, eta hori guztia aplikatu beharreko merkataritza legeriarekin edo legeria zibilarekin bat eginez.
- Edonola ere, sinatzailearen Nortasun Agiri Nazionalaren kopia eta erakundea legez ordezkatzeko gaitasuna egiaztatzen duen agiria (izendapen ziurtagiria, ahalduntze eskriturak, eta abar).
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 71. artikuluan zerrendatutako kontratatze debekuen barne ez dagoela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, beharrezko kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa izatea eta gaitasun teknikoa, profesionala eta kudeaketakoa izatea bermatzen duena aurkeztutako proiektua egikaritzeko. Hala, DEMAko kontratazio epaimahaiak aurkeztutako ziurtagiriak egiaztatu ahal izango ditu eta egoitza bisitatu ahal izango du beharrezkotzat jotzen baldin bada. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituenaren berriazko adierazpena, baita laneko arriskuen eta ingurumen politiken alorrean ere.

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa dokumentu bidez justifikatzea, honako hauek aurkeztuz:

- Negozio guztien zifra orokorrari buruzko dokumentazioa eta enpresak azken bi ekitaldietan egindako zerbitzu edo lan nagusien banaketa, zenbatekoak, datak eta onuradun publikoak eta pribatuak adieraziz. Horrelakorik aurkeztu ez bada, urteko azken kontu ofizialen ordainagiria, dagokion erregistrotik pasatu ondoren.
- Erantzukizun zibileko aseguruaren ziurtagiria.
- Zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituenaren ziurtagiria.

- Gaitasun teknikoa, profesionala eta kudeaketakoa dokumentu bidez justifikatzea. Hori egiaztatzeke honako agiriak aurkeztu beharko dira:

- Enpresak sinatutako eta zigilatutako adierazpena, honakoak jasotzen dituen:

- Azken 2 urteetan egindako zerbitzuen edo lanen zerrenda, lanen deskribapena, datak eta hartzaile publikoa edo pribatua adieraziz.
 - Enpresako langileen azken urteko batezbestekoa, administraziokoak, teknikariak eta zuzendariak banatuz eta gaur egungo langileen banaketa jasoz.
 - Zerbitzuen prestazioan lan egingo duten langileak, laneko kategoria eta titulazio akademikoa adieraziz.
 - Instalakuntzak eta ekipamendu teknikoak eta materiala deskribatzea, zerbitzua gauzatzeko dituztenak hain zuzen ere.
 - Enpresak kalitatea eta emaitzen gogobetetasuna neurtzeko hartutako neurriak.
- Azken hiru hilabeteetako RLC eta RNT agiriak.
 - Kontratuaren egikaritzean parte hartuko duten langileen curriculum vitaeak.
 - Zerbitzu informatikoen epigrafean IAEn alta eman izanaren ziurtagiria.

Aurkeztu beharreko dokumentazio guztiari buruz DEMAko kontratazio epaimahaiak eskumena izango du hautapen prozesuan jatorrizko agiriak eskatzeko, eta edonola ere hautapen prozesua bukatzean horiek eskatzeko.

B GUTUN-AZALA: Izenburu hau ere izango du:

“BANAKAKO ENPRESARIENTZAT WEBGUNE BAT ETA APP BAT DISEINATZEKO, GARATZEKO ETA EZARTZEKO” ZERBITZUA EMATEKO ESKAINTZA

Gutun-azalean **enpresaren izena, parte-hartze eskaria sinatu dituenaren izen-abizenak** eta hori egiteko ahala jaso beharko dira. Gutun-azala ere **sinatuta** egon beharko da.

Gutun-azal horretan honako agiriak jasoko dira:

- j) Eman beharreko zerbitzuaren azalpen memoria:** 2. eta 3. puntu zehaztutakoaren arabera.
- k) Eskaintza ekonomikoa:** Eskaintza ekonomikoan gutxienez ere lan kostuen, egitura kostuen eta bestelako kostuen aurrekontu banakapena jasoko da. Eredu hau bete beharko da:

.....jaunak/
andreakhelbidedunak,KP,NAN
zenbakidunak,telefono zenbakidunak eta helbide elektronikoa duenak, jarduteko gaitasun
juridiko osoz, norbere izenean edo (..... ordezkatuz),helbidea duena,KP, telefono
zenbakia eta NAN edo IFK zenbakia (pertsone fisikoaren edo juridikoaren arabera)..... duena, hau ere

ADIERAZI DUT:

1) Banakako enpresarietzako webgune bat eta APP bat diseinatzeko, garatzeko eta ezartzeko zerbitzua emango dudala.....euroko prezioan gehi BEZari dagozkion (%)..... euroan etahilabeteetan. Hala, prezio horren barne daude kontzeptu guztiak, hau da, zergak, gastuak, tasak eta arielak, eta kontratistaren onurak ere bai. Aurretik adierazitako prezioan zerbitzua orokorrean jaso da, eta honako partidetan banatuko da:

2) Ezagutzen dut adjudikazio prozeduraren baldintzen plegua eta adjudikazio hau arautzen duen gainerako dokumentazioa, eta berriaz onartzen ditut eta guztiz men egiten diet.

3) Ordezkatzen dudana enpresak irekitzeko, instalatzeko eta martxan jartzeko indarrean dagoen araubideak ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen ditu.

.....(e)(a)n, 20.....(e)ko.....ren.....(e)(a)n
Sinadura

Ezarritako eskaintza eredu eta jarraibide horiek betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu ahal izango dira.

12.- KONTRATAZIO EPAIMAHAIA

DEMAk kontratazio epaimahaia sortuko du eta bertan erakundeko zuzendariak eta teknikariak egongo dira. Epaimahai horrek baloratuko ditu hautagaitzak. DEMAko kudeatzailetza kontratazio mahaiaren presidentetza izango da eta adjudikazioa sinatuko du.

Prozesu honi buruzko kontsultak edo erreklamazioak egiteko contratos@dema.eus helbide elektronikora mezu bat bidaliko da edo eskutitza bidaliko zaio DEMAko kudeatzailetzari.

13.- HAUTAKETA EPEAK

Hautaketa ahalik eta azkarren egingo da, eta DEMAko adjudikazio prozedura hau 2018/12/15 aurretik ebatziko du.

14.- PROZEDURA ADJUDIKATZEA

Kontratazio epaimahaiak eskaintza bakoitza baloratuko du baldintzen plegu honetan argitaratutako irizpideekin bat eginez, eta kontratazioa adjudikatuko dio eskaintza abantailatsuenari edo prozedura hustzat joko du eskaintzek zerbitzua beteko ez dutela uste badu. Kasu batean zein bestean, lehiakideek ez dute indemnaziorako eskubiderik izango.

Prozedura hutsik geratzen ez bada, kontratazio epaimahaiak baldintzen plegu honetan jasotako balorazio irizpideekin bat eginez prozedura irizpideak gehien betetzen dituenari adjudikatuko dio, halaberrez eskaintza ekonomikoa kontuan hartu behar izan gabe. Hala ere, irizpide ekonomikoaren barnean, eskaintako zerbitzuentzat kendu beharreko balioari arrazoiz gehien egokitzen zaion eskaintza aukeratuko du.

DEMAk prozeduraren ebazpenaren emaitzaren berri emango die erakunde parte-hartzaile guztiei mezu elektronikoz bitartez. Erakunde adjudikaziodunak gainera mezu elektronikoz horri atxikita jasoko du kontratuaren adjudikazio agiria eta kontratua sinatzeko eta zerbitzuekin hasteko epeen berri ere emango zaio.

15.- SINATU BEHARREKO KONTRATUAREN IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Plegu honetan oinarritutako kontratua kontratu pribatua izango da legeria zibilean eta merkataritzakoan oinarritutako Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 26. artikuluan araututakoaren arabera.

Horrez gain, DEMAko banku abalak eskatu ahal izango ditu horiek beharrezkoak baldin badira.

Adjudikaziodunak prest egon beharko du zerbitzuak ematen hasteko kontratua sinatu bezain laster.

Kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta kontratua formalizatzen ez baldin bada, DEMAko kontratua suntsiaraztea ebatzi ahal izango du aurretiaz interesatuari entzunaldia emanda eta kalte-galerengatik indemnazioarekin.

16.- KLAUSULA SOZIALAK

Dibertsitate funtzionala dutenak lehenestea. Enpresa lizitatzaileraren edo gehiagoren artean berdinketa gertatuz gero adjudikaziorako oinarri diren irizpideak kontuan hartuta, gaitasun teknikoa egiaztatzerakoan plantillan % 2 baino gehiagoko desgaitasuna duten langileak dituen enpresaren proposamena lehenetsiko da.

Proposamen abantailatsuenak kontuan hartuz plantillan % 2ko kopurua gainditzen duen desgaitasuna duten langileak egiaztatu dituzten zenbait enpresa lizitatzailerik berdinak egonez gero, kontratua adjudikatzean lehenetsi egingo da plantillan desgaitasuna duten langile finkoen ehuneko kopuru altuena duen enpresa.

Berdintasuna lehenestea. Eskaintza bi edo gehiago berdinak baldin badaude abantailatsuenak direlako eskaintzen balorazio irizpideak kontuan hartuz, adjudikaziorako lehentasuna izango dute gaitasun teknikoak egiaztatzean honakoak adierazi dituzten enpresek edo erakundeek:

- “Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako lankidetzan ari den erakundea” gisako ziurtapenak dituztenak, erakunde publikoek emandakoak.
- Berdintasun Plana diseinatu eta aplikatu dutenak.
- Laneko diskriminazioak saihesteko, emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasunak lortzeko edo laneko, norbere eta familiako bizitza kontziliatzeko neurriak hartu dituztela egiaztatzen dutenak.
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan eta/edo Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako aukera berdintasuna lortzeko neurriak ezarri dituztenak.

17.- HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA

Argitaratzen denetik 2018ko azaroaren 30era artekoa izango da epea.

Hautagaitzak DEMAren bulegoetan aurkeztu beharko dira, Barakaldo Elkartegian, Fanderia kaleko 2. zenbakian.